

| TITULARRAK  | ADIERAZLEAK  |   |                            |                       |
|---|--|---|----------------------------|-----------------------|
|   | Azken datua  | Δ Urte artekoa (%)<br><small>*aurreko aldia</small> | Azken datuaren data        |                       |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak gora egin du; aurreko hilabetean baino % 0,6 gehiago da orain. Guztira 184.133 pertsona daude. Erregistratutako langabeen kopurua jaitsi egin zen apirilean, eta orain 22.460 dira, martxoan baino -% 1,2 gutxiago.</li> <li>Kontratu-kopurua ere, urtetik urtera, -% 17,7 jaitsi da apirilean.</li> <li>Txikizkako merkataritzako salmentek 2022ko lehen hiruhilekoa % 3,9ko igoerarekin itxi dute 2021eko aldi berdinarekin erkatuta.</li> <li>Saltoki handietako apirileko salmentek urte arteko -% 0,5eko beherakada nominala izan dute.</li> <li>Bilboko turismo-jarduerak urtetik urtera gora egin du, eta 170.400 ostatu-gau (% 319,4) eta 89.590 sarrera (% 284,9) erregistratu dira.</li> <li>Bestalde, merkatuko beste zerbitzu batzuen salmenta-indizea % 14,3 igo da urtetik urtera.</li> <li>Bilboko aireportuak 440.119 bidaiari jaso ditu apirilean; hortaz 379.052 bidaiari gehiago egon dira 2021eko hilabete berarekin alderatuta.</li> <li>Bilboko Portuko salgaien garraioa apirilean % 8,4 handitu da urte batetik bestera.</li> </ul> | <b>Lan-merkatua</b><br><b>Afiliatutako biztanleak</b> (kop.)<br><b>Erregistratutako langabeak</b> (kop.)<br><b>Erregistratutako kontratuak</b>   | <b>184.133</b><br><b>22.460</b><br><b>9.463</b>     | <br>0,6*<br>-1,2*<br>-17,7 | <br>ap.<br>ap.<br>ap. |
|   | <b>Merkataritza</b><br><b>Txikizkako merkataritza: salmenta-indizea</b> (2015. urtea = 100eko oinarria)<br><b>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea</b> (2015. urtea = oinarria 100) | <b>104,0</b><br><b>106,2</b>                        | <br>3,9<br>-0,5            | <br>I. HH<br>ap.      |
|   | <b>Turismoa</b><br><b>Bidaiarien sarrera</b> (kop.)<br><b>Ostatu-gauak</b> (kop.)  | <b>89.590</b><br><b>170.400</b>                     | <br>284,9<br>319,4         | <br>ap.<br>ap.        |
|   | <b>Ekonomia</b><br><b>Zerbitzuak: salmenta-indizea</b> (2015. urtea = 100eko oinarria)   | <b>103,2</b>  | <br>14,3                   | <br>I. HH             |
|   | <b>Garraioa</b><br><b>Bidaiarien aireko garraioa</b> (kop.)<br><b>Salgaien itsas garraioa</b> (milioi tona)  | <b>440.119</b><br><b>2,7</b>                        | <br>620,7<br>8,4           | <br>ap.<br>ap.        |

### DATU BAT

# % 319,4

Hoteletako ostatu-gauak

## LAN-MERKATUA

### Erregistratutako langabezia-tasa

Apirilean 279 langabe gutxiago erregistratu dira; horrek esan nahi du  $-1,2\%$ ko beherakada egon dela hilabete batetik bestera, eta 22.460 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabeziak behera egin du ( $-0,8\%$ ), eta gizonenak ere bai ( $-1,7\%$ ). Nolanahi ere, langabeziak gehiago eragiten die emakumei.

Langabeziak kontuan hartutako adin-talde guztietan egin du behera. Gazteen taldean  $-1,8\%$  egin du behera,  $-1,5\%$  25-44 urte arteko taldean eta 45 urte eta gehiagoko tartean  $-0,9\%$ .

Langabeziak behera egin du sektore guztietan: zerbitzuetan 260 langabe gutxiago, eraikuntzan 31 gutxiago, industrian 13 gutxiago eta lehen sektorean 3 gutxiago. Aurretik enplegua ez zutenen taldean ere behera egin du, 6 langabe gutxiago hilabete honetan.

EAEan, langabeziak  $-1,3\%$  egin du behera. Araba eta Gipuzkoan jaitsi da,  $-1,1\%$  bi kasuetan, bai eta Bizkaian ere,  $-1,4\%$ .

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5), langabeziaren bilakaerak  $-2,3\%$ ko beherakada izan du aurreko hileko datuen aldean. Joera bera izan da taldeko hiriburu guztietan. Besteak beste, Madrilek izan du beherakadarik esanguratsuen ( $-3,2\%$ ), eta Valentziak txikiena ( $-0,1\%$ ).

Euskal hiriburuen multzoan (G-3) langabeziak  $-1,5\%$  egin du behera. Behera egin du Gasteizen ( $-1,2\%$ ) eta Donostian ( $-2,0\%$ ). Iruñean  $-1,6\%$  egin du behera.

### Afiliazioa

Bilboko enpresetan afiliatutako biztanleak 184.133 izan dira apiril amaieran; hau da, aurreko hilean baino 1.184 afiliatu gehiago egon dira, eta 2019. urteko daturik onena gaingitu da.

Araubideen arabera, Araubide Orokorrean 1.081 enplegu gehiago daude martxoan baino ( $0,7\%$ ). Langile autonomoen araubide berezian 69 afiliatu gehiago daude eta etxeko langileen araubidean 38 gehiago ( $0,3\%$  eta  $0,6\%$  hurrenez hurren), eta gainerako araubide berezietan (nekazaritza eta itsasoa) 4 afiliatu gutxiago daude.

Euskal Autonomia Erkidegoan afiliatutako biztanleen kopuruak  $0,6\%$  egin du gora hilabete batetik bestera. Araban eta Bizkaian gora egin du afiliazioak,  $0,5\%$  bi kasuetan, eta Gipuzkoan  $0,7\%$ .

#### Erregistratutako langabeak

|           |                 |
|-----------|-----------------|
| Apirila   | 22.460 pertsona |
|           | $1,2\%$ ▼       |
| Emakumeak | $0,8\%$ ▼       |
| Gizonak   | $1,7\%$ ▼       |

#### Benchmarkina

|       |           |
|-------|-----------|
| Bilbo | $1,2\%$ ▼ |
| G-5   | $2,3\%$ ▼ |
| G-3   | $1,5\%$ ▼ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

#### Afiliatutako biztanleak

|                   |                  |
|-------------------|------------------|
| Apirila           | 184.133 pertsona |
|                   | $0,6\%$ ▲        |
| Araubide Orokorra | $0,7\%$ ▲        |
| Autonomoak        | $0,3\%$ ▲        |
| Etxeko SB         | $0,6\%$ ▲        |
| Beste batzuk      | $0,6\%$ ▼        |

**Jarduera-sektoreen arabera.** Apirilaren amaieran, 5.479 pertsona gehiago daude afiliatuta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (% 3,1).

Sektoreka, zerbitzuetan baino ez dira afiliatu gehiago egon, 5.650 gehiago (% 3,5); enplegua galdu da industrian, eraikuntzan eta lehen sektorean (–% 1,3, –% 0,4 eta –% 9,6, hurrenez hurren).

Zerbitzuei dagokienez, nabarmentzekoak dira honako hauetan egondako gorakadak: ostalduetan (% 17,6 eta 237 afiliatu gehiago), aisialdian eta kulturaren (% 14,7 eta 539 gehiago) eta ostalaritzan (% 7,0 eta 632 gehiago). Bestalde, enpleguak gora egin du gizarte-zerbitzuetan (% 6,1), bai eta beste zerbitzuetan eta higiezinetan ere (% 6,0, bi kasuetan). Merkataritzan ere positiboan itxi da, % 1eko hazkundearekin eta 183 enplegu gehiagorekin.

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 1,2ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Gora egin du kontuan hartutako hiri guztietan. Sevillan erregistratu da gorakadarik handiena (% 1,6).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua igo egin da: % 0,7. Gasteizen % 0,5 igo da, Donostian % 0,9 eta Iruñean % 0,7.

## Kontratuak

Apirilean 9.463 kontratu sinatu ziren Bilbon, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino –% 17,7 gutxiago (2.034 kontratu gutxiago).

2021eko apirilarekin alderatuta, behera egin dute gizon zein a emakumeei egindako kontratuak: 820 eta 1.214 gutxiago izan dira, hurrenez hurren. Adin-tarteen arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen % 52,8 (5.000 kontratu); % 28,5, berriz, 45 urtetik gorakoei (2.694), eta gainerako % 18,7 25 urtetik beherakoei (1.769).

Sektoreen arabera, zerbitzuen sektoreak 2021eko apirilean baino 1.651 kontratu gutxiago izan ditu. Industrian eta eraikuntzan behera egin dute (234 eta 149 gutxiago, hurrenez hurren).

Zerbitzuei buruzko datu absolutuetan, nabarmentzekoa da osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jardueren kontratuen beherakada (952 gutxiago), bai eta administrazio-jardueretan, garraioan eta biltegiatzean eta profesioletan zein zientifiko eta teknikoetan egondako kontratuen beherakada ere (457, 265 eta 252 gutxiago, hurrenez hurren). Informazio eta komunikazioetan, merkataritzan eta hezkuntzan, halaber, beherakada nabarmenak egon dira kontratuetan. Kontratuek ostalaritzan % 95 egin dute gora urtetik urtera.

Kontratazio-esparru berriarekin, % 167,5 egin dute gora kontratu mugagabeek. Aldi baterako kontratuak guztien % 63,9 izan dira. Apirilean 7.560 pertsona kontratatu dira, eta % 56,3 emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,25 kontratu.

### Populazio afiliatua

|                |                               |
|----------------|-------------------------------|
| <b>Apirila</b> | <b>184.133 pertsona</b>       |
|                | <b>% 3,1 ▲ urtetik urtera</b> |
| Lehen sektorea | % 9,6 ▼                       |
| Industria      | % 1,3 ▼                       |
| Eraikuntza     | % 0,4 ▼                       |
| Zerbitzuak     | % 3,5 ▲                       |

### Benchmarkina

|              |                |
|--------------|----------------|
| <b>Bilbo</b> | <b>% 0,6 ▲</b> |
| <b>G-5</b>   | <b>% 1,2 ▲</b> |
| <b>G-3</b>   | <b>% 0,7 ▲</b> |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

### Erregistratutako kontratuak

|                |                       |
|----------------|-----------------------|
| <b>Apirila</b> | <b>9.463 kontratu</b> |
|                | <b>% 17,7 ▼</b>       |
| Emakumeak      | % 18,6 ▼              |
| Gizonak        | % 16,5 ▼              |

## MERKATARITZA

### Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak urtetik urtera  $-0,5\%$  jaitsi dira apirilean, lan-egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabeteari dagokionez, salmentak  $4,5\%$  igo dira.

Elikagaien salmentek  $-11,1\%$  egin dute behera 2021eko apirilarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak  $21,2\%$  handitu dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko  $4,0\%$  gorakada izan du, eta horrela jarraian 12 hilabete baino gehiagotan izan ditu gorakadak.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban ( $-5,6\%$ ) eta Gipuzkoan ( $-4,0\%$ ). EAEn, orokorrean,  $-2,3\%$  egin dute behera.

### Txikizkako merkataritza

Bizkaiko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenten  $3,9\%$  gorakada izan du lehenengo hiruhilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek  $4,2\%$  egin dute gora.

Aurreko hilabeteari dagokionez, txikizkako salmentak  $0,9\%$  handitu dira.

Sektoreka, urtetik urtera elikagaien saltokien salmentak murriztu egin dira ( $-1,7\%$ ), eta gainerako produktuenak, berriz, handitu ( $9,6\%$ ). Ibilgailuetarako erregaien salmentak behera egin du ( $-3,9\%$ ).

Bizkaiko txikizkako merkataritzako sektoreko landunak  $5,6\%$  areagotu dira urtetik urtera.

Lurraldeen arabera, txikizkako salmentek urterik urte gora egin dute Gipuzkoan ( $9,5\%$ ), baina behera Araban,  $-0,7\%$  gutxiago. EAEn, orokorrean,  $4,9\%$  egin dute gora.

#### Saltoki handiak Bizkaia

|                         |                             |
|-------------------------|-----------------------------|
| <b>Apirila</b>          | <b>106,2</b>                |
| <b>Salmenta-indizea</b> | <b><math>0,5\%</math> ▼</b> |
| - Elikagaiak            | $11,1\%$ ▼                  |
| - Gainerako produktuak  | $21,2\%$ ▲                  |
| <b>Landunak</b>         | <b><math>4,0\%</math> ▲</b> |

#### Txikizkako merkataritza Bizkaia

|                             |                                 |
|-----------------------------|---------------------------------|
| <b>I. hiruhilekoa</b>       | <b>104.0 adierazle orokorra</b> |
|                             | <b><math>3,9\%</math> ▲</b>     |
| - Elikagaiak                | $1,7\%$ ▼                       |
| - Gainerako produktuak      | $9,6\%$ ▲                       |
| - Ibilgailuetarako erregaia | $3,9\%$ ▼                       |
| Gasolina-zerbitzugerik gabe | $4,2\%$ ▲                       |
| <b>Landunak</b>             | <b><math>5,6\%</math> ▲</b>     |

## TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduen sarean 170.400 ostatu-gau erregistratu dira orain arte hilabeterik onena izan den apirilean (gainera, Aste Santua ere izango dugu); hau da, 129.770 ostatu-gau gehiago egon dira aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (% 319,4).

Bidaiarien sarrerak ere antzera egin du gora. Gora egin du bidaiari atzerritarren kopuruak, eta estatuko bidaiari gehiago egon dira. Estatuko turistak hiribilduko hoteletan ostatu hartutako bidaiari guztien % 56,4 izan dira; Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 26,2), gero Kataluniakoak (% 15,3), EAEkoak (% 13,2) eta Andaluziakoak (% 7,6). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 15,2), Alemania (% 11,2), Erresuma Batua (% 9,8), AEB (% 8,2) eta Portugal (% 6,4).

Batez besteko egonaldia 1,90 ostatu-gau izan da.

Libre egon den logelari dagozkion diru-sarreraren kopuruak 63,4 euro egin du gora urtetik urtera, baina 2019. urtean lortutakoen azpitik daude oraindik ere, 74,5 euro apirilean.

Urtean metatutako datuari dagokionez, urtariletik apirilera 452.394 ostatu-gau lortu dira Bilbon; hau da, aurreko epe berean baino % 239 gehiago izan dira, 318.946 ostatu-gau gehiago, alegia.

**Aste Santua Bilbon:** Mugikortasun-murrizketarik gabeko Aste Santu honetan 15.614 sarrera (% 141,4) eta 32.960 osatu-gau (% 226,6) egon dira, eta hobera egin dute aurreko erregistroek.

Turismoaren % 64,6 estatukoa da eta batez besteko egonaldia 2,11 ostatu-gau bidaiari bakoitzeko; hau da, gora egin du 2021eko apirilarekin alderatuta (1,56), eta 2019. urtean lortutakoaren azpitik geratu da (2,15).

Eskainitako plazen % 82,8 bete dira.

**Benchmarkina.** Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 217,9 hazi da eta. Izan ere, gora egin dute Gasteizen, Donostian eta Iruñean.

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 454,7ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua.

### Ostatu-gauak

**Apirila** 170.400 ostatu-gau  
% 319,4 ▲

### Bidaiarien sarrera

**Apirila** 89.590 sarrera  
% 284,9 ▲

### Benchmarkina

**Bilbo** % 319,4 ▲  
**G-5** % 454,7 ▲  
**G-3** % 217,9 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## EKONOMIA

### Merkatuko beste zerbitzu batzuen salmentak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte, % 14,3 igo dira lehenengo hiruhilekoan.

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak izan ezik (-% 0,7), adar guztiek urte arteko igoera erregistratu dute: Ostalaritzak izan du igoerarik nabarmenena: % 41,8. Garraioa eta biltegiatzeak % 21,6 egin du gora, jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak % 12,0 eta informazioa eta komunikazioak % 6,9.

Landunak % 0,9 ugartu dira urtetik urtera.

Araban salmenten indizeak % 15,7 egin du gora, Gipuzkoan % 11,1 eta EAEn % 13,6.

#### Zerbitzuen salmentak (Bizkaia)

|                  |          |
|------------------|----------|
| I. hiruhilekoa   | 103,2    |
| Salmenta-indizea | % 14,3 ▲ |
| Landunak         | % 0,9 ▲  |

## GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

### Aireko bidaiariak

Bilboko aireportuak 440.119 bidaiari erregistratu ditu apirilean; beraz, urte arteko % 620,7ko igoera izan du (2021eko apirilean baino 379.052 bidaiari gehiago). Gainera, 2019. urteko bidaiarien % 83,6 berreskuratu ditu.

Datu absolutuetan, gora egin du estatuko bidaiarien kopuruak; zehazki, iaz baino 221.716 gehiago daude. Gora egin dute, halaber, nazioarteko hegaldietako bidaiariak (156.629 gehiago), eta, gainera, ehunekoari erreparatuz gero, hobeto suspertu da kopurua.

Egindako hegaldien kopurua, helduerak eta irteerak batuta, 4.006 hegaldikoa izan da apirilean.

Garraiatutako salgaien kopurua 56.564 kg izan da.

Aurten, urtarriletik apirilera, metatutako datuari dagokionez, dagoeneko 1.130.687 bidaiari lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 440,6 gehiago izan dira, 921.529 bidaiari gehiago, alegia.

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), 7.276.652 bidaiari gehiago zenbatu dira 2021eko apirilarekin alderatuta. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, 50.789 bidaiari gehiago egon dira. Hiru aireportuetan, halaber, gorakada garrantzitsuak egon dira bidaiarien kopuruan.

#### Aireko garraioa

|         |                  |
|---------|------------------|
| Apirila | 440.119 bidaiari |
|         | % 620,7 ▲        |

#### Benchmarkina

|       |           |
|-------|-----------|
| Bilbo | % 620,7 ▲ |
| G-5   | % 440,1 ▲ |
| G-3   | % 423,3 ▲ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,7 milioi tonako trafikoa izan du apirilean, hau da, % 8,4 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan apirilean kudeatutako salgaien % 66,3 izan da, eta urte arteko % 34,2ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoak -% 31,2 egin zuen behera (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta, oro har, salgai guztiek egin dute behera (-% 16,0).

Bidaiarien itsas garraioan, 25.534 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Apirilean 12 itsas bidaia eta 15.429 itsas bidaiari erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtarrietik apirilera, 10,1 tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko epe berean baino % 0,1 gehiago.

### Itsas garraioa Apirila

|                         |                               |
|-------------------------|-------------------------------|
| <b>Portuko trafikoa</b> | 2,7 milioi tona<br>% 8,4 ▲    |
| <b>Bidaiariak</b>       | 25.534 bidaiari<br>% 1441,9 ▲ |

## ADIERAZLEEN TAULA

|   | Azken data | Urtetik urterako aldakuntza (%)<br>*aurreko aldia | Azken datuaren data |
|---|------------|---|---------------------|
| <b>Lan-merkatua</b>                                   |            |   |                     |
| Erregistratutako langabeak (kop.)                     | 22.460     | -1,2*   | 2022ko api.         |
| Afiliatutako biztanleak (kop.)**                      | 184.133    | 0,6*  | 2022ko api.         |
| Erregistratutako kontratuak (kop.)**                  | 9.463      | -17,7   | 2022ko api.         |
| Biztanleria aktiboa (milakotan)                       | 173,7      | -1,5*   | 2022ko 1. HH        |
| Biztanleria landuna (milakotan)                       | 157,6      | -0,4*   | 2022ko 1. HH        |
| Langabeak (milakotan)                                 | 16,1       | -10,6*  | 2022ko 1. HH        |
| BAlko langabezia-tasa (%)                             | 9,29       | -0,91 * p.p.                                      | 2022ko 1. HH        |
| <b>Merkataritza</b>                                   |            |   |                     |
| Konsumoko prezioen indizea (KPI)***                   | 107,2      | 8,0   | 2022ko api.         |
| Afiliatutako pertsonak**                              | 19.241     | 1,0   | 2022ko api.         |
| Txikizkako merkataritzako salmenta (indizea)***       | 104,0      | 3,9   | 2022ko I. HH        |
| Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak | 106,2      | -0,5  | 2022ko api.         |
| <b>Turismoa</b>                                       |            |   |                     |
| Bidaia-erien sarrera                                  | 89.590     | 284,9   | 2022ko api.         |
| Ostatu-gauak  | 170.400    | 319,4   | 2022ko api.         |
| Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-eria)    | 1,90       | 8,6   | 2022ko api.         |
| Hoteletako okupazio-maila (%)                         | 58,0       | 39,2 p.p.   | 2022ko api.         |
| Diru-sarrerak libre dagoen logelako ,(€)              | 63,4       | 294,5   | 2022ko api.         |
| <b>Ekonomia eta enpresa</b>                           |            |   |                     |
| Bizkaiko BGPd   | 108,9      | 4,8   | 2021eko 4 HH        |
| Industria ekoizpena (indizea)***                      | 112,5      | 8,2   | 2022ko mar.         |
| Merkataritzako sozietate berriak                      | 216        | 35,0  | 2022ko I. HH        |
| Zerbitzuetako salmentak (indizea)***                  | 103,2      | 14,3  | 2022ko I. HH        |
| <b>Garraioa</b>                                       |            |   |                     |
| Bidaia-erien aireko garraioa                          | 440.119    | 620,7   | 2022ko api.         |
| Hegaldiak   | 4.006      | 259,9   | 2022ko api.         |
| Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan) tona         | 2,7        | 8,4   | 2022ko api.         |


\* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. \*\* Bilboko enpresetan \*\*\* Bizkaia-ri dagokiona.

Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EInren, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.




## GRAFIKOAK


### Afiliatutako biztanleak




### Erregistratutako langabezia




### Txikizkako merkataritza- Aurkibidea



### Zerbitzu-indizea



### Aireportuko bidaiariak



### Hoteletako ostatu-gauak

